

ONDIZKO JAIK 2023

BAKILAO TXAPELKETA

IRAILAK, 9 larunbata

BAKILAO LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Lur-zatiak goizeko 09:00etan zozkatuko dira. Lur-zatien prezioa 5 € koa izango da. Pertsonako lur-zati bana zozkatuko da.
2. Antolatzaileek jarriko dute egurra partaideen esku.
3. Bakilaoa egiteko egurrez, gasez, landare-ikatzez edo erre daitekeen beste elementuren batez piztutako sua erabil daiteke.
4. Bakilaoa eta haren saltsa jai gunean egin beharko dira, eta lehiaketara aurkeztutako kazolak, gunean bertan jan beharko dira.
5. Goiz osoan zehar, kazola guztiak aztertuko dituzte antolatzaileek eta jai gunean egin ez diren saltsak eta bakilaoa erabiltzen dituzten partaideak lehiaketatik kanpo utziko dituzte.
6. Kazolen izen ematea 11:00etatik 11:30era izango da.
Kazola bakoitzeko 5 € ordaindu beharko da.
7. Kazolen aurkezpena 13:30etik 14:00etara izango da.
8. Epaimahaia ondoko hauek osatuko dute: sukaldaritzako profesional batek, antolatzaile batek eta parte hartzen duten koadriletako kide batek.
Kide hori zozketa bidez aukeratuko da.
9. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.
10. Sari banaketa arratsaldeko 18:00etan egingo da.
11. Lehiaketa honetan parte hartuz gero oinarri hauek eta lehiaketaren antolatzaileek egin ditzaketen aldaketak eta egokitzapen guztiak onartzen dira.

GARRANTZITSUA:

- **Debekatuta dago** zuhaitzetan untze edo bestelakorik sartzea.
- Ibilgailuek plazatik kanpo egon beharko dute goizeko 10:00h. baino lehen.
- Hondakinatarako zakar poltsak erabili, eta behar izanez gero, gehiago eskatu.
- Ingurua zaindu (suen tamaina, hiri altzariak, e.a.)

SARIAK:

- | | |
|--------------------------|--------------------------|
| 1. 300 € eta garaikurra. | 6. 50 € eta garaikurra. |
| 2. 250 € eta garaikurra. | 7. 50 € eta garaikurra. |
| 3. 200 € eta garaikurra. | 8. 50 € eta garaikurra. |
| 4. 150 € eta garaikurra. | 9. 50 € eta garaikurra. |
| 5. 120 € eta garaikurra. | 10. 50 € eta garaikurra. |

Lehenengo 30 postuetan sailkatzen diren kazolek saria jasoko dute.